

**MEMORIAREN EGUNA
DÍA DE LA MEMORIA**

2021-11-10 Donostia-San Sebastián 10-11-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintari eta herri ordezkariok, biktimen senitarteko eta kideok, garai bateko gizarte mugimenduetako ordezkari eta kideok, jaun-andreok, egun on.

Gaur, Memoriaren Egunean, Gipuzkoako Foru Aldundian elkartu gara. Memoriaren Eguna da eta iraganari orainetik begiratzen diogu, etorkizun hobea eraikitzeko.

Bat gatoz ideia batekin: Euskadiren etorkizunak Memoria izan behar du. Azken hamarkada hauetan, denon artean, Euskadiren erakundetzean aurrera egin dugu; gure Herria eraiki dugu, diktaduraren tunel luze eta ilunaren ondoren.

Aurrera egin dugu eta, gaur egun, Euskadik munduko Giza garapenaren Indizerik altuenetakoak ditu.

Harro egon gaitezke guztion lorpen horregatik. Harro, Giza garapena guztiontzat nahi dugun xedea dalako; eta, lortutakoa, auzolanaren fruitua delako.

Lorpen hori, gure Herriak hamarkadetako indarkeria eta giza eskubideen urraketa jasan duen bitartean lortu da.

Bai, indarkeria eta eskubideen urraketa ugari jasan ditugu.

Horrek ez du indarkeria bakoitzaren larritasuna lausotzen, bereziki ETA-ren indarkeria terroristarena, gure eskubideak eta askatasuna ia mende erdiz murriztu baitzuten.

Nuestro País ha soportado, durante décadas, diversas expresiones de violencia y vulneraciones de los derechos humanos.

Hoy, en este Día de la Memoria, ponemos en valor el compromiso cívico de una inmensa mayoría de la sociedad vasca frente al terrorismo y en favor de la paz, la libertad y la convivencia.

No se trata de reescribir ni dulcificar la historia; pero Sí se trata de poner en valor lo que hicimos.

Comparto dos conclusiones:

- Una parte minoritaria de la sociedad vasca justificó, amparó y dotó de base social a la estrategia de utilizar la violencia con fines políticos; y
- La inmensa mayoría de la sociedad vasca, silenciosa, silente durante años, sí, pero no silenciada, demostramos el compromiso con los derechos humanos, la vida y la libertad de las personas.

Hoy es el Día de la Memoria.

Recordamos el compromiso demostrado por aquellos pequeños grupos, muchos vinculados a parroquias y comunidades cristianas de base, que enarbolaron desde un principio la bandera de los principios y valores éticos.

El compromiso de quienes, ya el 28 de junio de 1978, se movilizaron en Portugalete contra ETA bajo el lema “Estamos hartos de violencia y asesinatos. Askatasuna eta bakea”.

Compromiso demostrado por las decenas de miles de personas que, el 28 de octubre de 1978, recorrimos las calles de Bilbao tras una pancarta que rezaba “Por una Euskadi libre y en paz”.

Compromiso de 33 artistas e intelectuales vascos, de diversas ideologías que, en mayo de 1980, levantaron su voz y suscribieron el Manifiesto “Aún estamos a tiempo. Garaiz gabiltz”.

Compromiso de las 100.000 personas que, el 9 de febrero de 1981, nos manifestamos bajo el lema: “Euskadi: paz y libertad”, tras el asesinato por ETA del ingeniero José María Ryan.

Memoriaren Eguna da. 1978. 1979. 1980. 1981. urteak dira. Aitzindaria izan zen konpromiso baten urteak. Konpromiso horrek bide bat ireki zuen, urtez urte zabaltzen eta indartzen joan zena.

Urte gogorak igaro genituen, berunezko urteak, oldar urteak edo sufrimenduaren sozializazioaren urteak, baita gerra zikinaren urteak ere.

Urte haietan terrorismoaren basakeriak eta zentzugabekeriak gure kontzientziak kolpatzen jarraitzen zuten. Baina, urte haietan ere, gizartearen erantzunak zabaltzen eta indartzen jarraitu zuen. Gero eta gehiago izan ziren keinuak edo konpromisoak.

Keinu edo konpromiso pertsonalak eta kolektiboak. Hainbestetan, kostu pertsonal handiak ekarri zituzten keinu eta konpromisoak. Horregatik guztiagatik, gaur, Memoriaren Egunean, zera diogu: Eskerrik asko!

Eskerrik asko a los movimientos sociales. Fuisteis la punta de lanza, el aldabonazo de nuestras conciencias. Sin vuestro coraje y determinación el camino y el final habrían sido distintos.

Eskerrik asko a cientos de miles de personas anónimas, por sus pequeños gestos y su gran compromiso: alzando la voz con su silencio, portando el lazo azul, recogiendo firmas por la no violencia y el diálogo. Personas que contribuyeron decisivamente al fin de ETA, de la violencia y el terrorismo, a traer la Paz y avanzar en la Convivencia.

Gracias a todas y todos ganamos el pulso. El pulso de la dignidad y la vida; de la deslegitimación de la violencia. El pulso de los derechos humanos; la paz y la libertad. El pulso del respeto, el diálogo, el pluralismo y la diversidad. El pulso de los principios y valores éticos y democráticos.

Memoriaren Egunean aitormena eta esker ona.

Zuei guztiok esker, irabazi dugu, etorkizuna irabazi dugu, etorkizuna irabazten ari gara. Horregatik, guztiagatik. Memoriaren Egunean. bihotz bihotzez. Eskerrik asko!